

**2016. URTEKO MERKATARITZA ESTABLEZIMENDUETAN ERROTULUAK
EUSKARAZ IPINTZEKO DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIAREN OINARRI
ESPEZIFIKOAK**

IN-E 180/01-15

UDAL AREA-SAILA- ERAKUNDEA:	EUSKARA SAILA
INSTRUKTOREA:	Euskara zerbitziburua
BALORAZIO BATZORDEA:	Juan Carlos Agirre Santa Maria, Benito Ibarrolaza Munitiz, Aingeru Astui Zarraga, Aritz Abaroa Cantuariense, Alazne Zumeta Garro, Idoia Platas Arenaza, Xabi Ortuzar Butron, Iker Aguado Buil.
XEDEA:	Merkataritza establezimenduetan errotuluak euskaraz ipintzeko diru laguntza
KODEA:	Espediente zk.: Euskara Sailaren 78-17
AURREKONTUAN ZEHAZTUTAKO DIRU-KOPURUA:	2016rako aurrekontu luzatuan: 2.762 €
HELBURUA:	<ul style="list-style-type: none"> - Merkataritza eta enpresa arloan euskara erabiltzea sustatzea - Establezimenduetako identifikazio-ikurrak euskaraz jar daitezen laguntzea, udalerriko hizkuntza paisajea euskaraz egon dadin
EPEA:	Eskaerak aurkezteko epea: deialdia argitaratzen denetik aurrera, 2016 amaitu arte.
BALORAZIO ERIZPIDE	<ul style="list-style-type: none"> - Errotulua euskaraz idatzita egotea. - Errotuluaren testua zuzen idatzita egotea. Hala ez balitz, zuzentzeko aukera izango



ZEHATZAK:	<p>du eskatzaileak eta frogagiria aurkeztuta, diru laguntza jasotzeko modua izango du.</p> <p>-Hala badagokio, hirigintzako lizentzia eskatuta izatea. -Elementu bat baino gehiago ipini gura badira, bakoitzari dagozkion agiriak aurkeztea</p>
ESKATZAILEAK:	<p>Bermeon kokatuta dauden merkataritza, ostalaritza eta zerbitzu-enpresa txikietako titularrek eskatu ahal izango dute diru laguntza.</p> <p>Diru laguntzaren onuradunek, errotulua ipintzeagatik hirigintzako lizentzia eskatu behar duten kasuetan, hobaria izango dute, tasaren %75ekoa.</p>
DIRUZ LAGUNGARRIA DAN KONTZEPTUA - PROGRAMA:	<p><u>Lagunduko diren elementuak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Establezimenduetako kanpoko errotulua 2- Autoetako errotulazioa 3- Toldoetako errotulazioa 4- Binilozko errotuluak <p><u>Diruz lagunduko ez direnak:</u></p> <ol style="list-style-type: none"> 1- Finantza erakunde, hipermerkatu eta establezimendu-kate handietako errotuluak. 2- Izen propio, toponimo eta abizenak bakarrik adierazten dituzten errotuluak. 3- Errotuluaren gastua bakarrik lagunduko da, ez diseinua, ez ipintzearen kostua, ezta diseinuaren bestelako osagaiak ere. 4- Bermeoko Udalagaz zorra daukana. <p>Gehienez eskura daitekeen diru-kopurua 300 €koa izango da. Zenbateko horretatik beherako eskaririk balego, kostuaren %75 eskura daiteke.</p>
PROZEDURA ETA AURKEZTU BEHARREKO DOKUMENTAZIOA:	<p>Ebazteko prozedura:</p> <p>Baldintzak betetzen dituzten eskariak Euskara zinegotzi delegatuaren dekretu bitartez onetsiko dira, errotulua ipinita dagoela frogatzeko argazkia aurkeztu eta gehienez, hamabost eguneko epean.</p> <p>Deialdi honetan aurreikusi ez direnak Balorazio- Batzordeak aztertu eta ebatziko ditu, diru laguntzak arautzen dituen 38/2003 Legeari jarraiki.</p> <p>Aurkeztu beharreko agiriak:</p> <p>-Eskaera-orria beteta</p>



- Errotuluaren izena jasotzen duen agiria
- Jatorrizko faktura
- Kontu zenbakia (IBAN kodea eta 20 digitu)
- Ipinitako errotuluaren argazkia

**ERLAZIONATUTAKO
AGIRIAK:**



79- Euskeraz
errotuluak jartzeagat

